

XABIREN ABENTURA

Duela urte asko Xabi deitzen zen mutiko bat Amaiurren bizi zen, bere familiarekin eta lagunekin. Mutikoaren lagunak hauek ziren: Julen, oso jatorra zen mutiko bat, Irati, taldeko jakintsuena, Ane, indartsuena, Mikel ,eskuzabalena eta Naia, kirolariena. Bera berriz, taldeko buruzagia zen baina hortik kanpo oso jatorra zen. Altua zen, ilehoria zen eta begi marroiak zituen. Gainera kirola ere egite zuen.

Egun batean bere lagunei tinbrea jotzera joan zen, 17:00etan parkean gelditu nahi zuen. Geroago, han agertu ziren denak 17:00etan parkean baloi batekin jolasten. Ondoren Xabik misio bat zuela esan zuen:

- Zuek! Gaur amets bat eduki dut, espaziora joaten garela.-esan zuen Xabik.
- Hala, ze dibertigarria izango zen espaziora joatea.-erantzun zion Julenek.
- Bai,horregatik pentsatzu dut, objektu bat asmatu eta espaziora joan gaitezkeela.-esan zuen Xabik pozik.
- Baina hori egitea ezinezkoa da.-esan zuen Iratik penatuta.
- Baina saiatzen bagara errazagoa izango da.-esan zuen esperantzarekin.

Ondoren, denak joan ziren etxera triste ezin zirelako espaziora joan. Hurrengo egunean oso eguraldi ona egiten zuen eguzkia, laino bat ere ez, 40°C..etab. Egun hartan denak denak piszinara joan ziren. Momentu batean, Xabik, aurreko eguneko gaia atera zuen:

- Gogoratzen duzue atzoko elkarrizketa?.-esan zuen Xabik.
- Bai, gogoratzen dugu,baina zer gertatzen da Xabi?-esan zuten denak batera
- Atzo, etxean zirriborroak marrazten egon nintzen eta espaziora joateko plano bat lortu nuen eta espaziontzia deitu nion. Egunen batean espaziontzia eraikiko dugu eta espaziora joango gera. -esan zuen Xabik pozik. Gero denak etxera joan ziren bazkaltzera. Orduan Xabi poliki-poliki "espaziontzia"egiten hasi zen, bere familiarekin. Gaua heldu zenean, ez

zuten asko aurreratu, oso zaila bait zen egindako planoa eraikitzea. Horrelaxe egon ziren Xabi eta bere familia ia astebete. Xabik bere lagunei kontatzera zihoan espazioarena.

- Kaixo, zuek!.-esan zuen Xabik pozik.

- Kaixo, Xabi.-erantzun zuten denak batera.

- Aste honetan nire familiarekin espaziontzia egiten egon naiz eta zati bat egin dugu bakarrik.Nahi duzue ikustera etorri?-esan zuen Xabik.

- Bai!!!!-esan zuten denak.

Eta Xabiren etxera joan ziren. Heldu zirenean denak harrituta gelditu ziren oso ondo eginda zegoelako. Eta hortik aurrera bere lagunak ere lagundu zioten eraikitze lanetan. Bukatuta zuten baina oraindik astronauten trajea egin behar zuten. 5 hilabete geroago dena eginda zegoen eta espaziora joateko moduan zeuden. Denak oso motibatuta zeuden, espaziora joateko gogoarekin. Egun hori 2011ko azaroak 14ean izango zen. Eguna heldu eta espaziontziko trajearekin espaziontzira igo ziren. Bidean zeudela planetak ikusten zituzten pozik. Momentu batean Ilargira ailegatu ziren eta denak irten ziren. Han egon ziren egun batzuetan Ilaegian eta gero etxera bueltatu ziren oso pozik.

Beraien etxera ailegatu ondoren oso pozik zeuden denak baina Xabi gehien bat. Xabiren etxe kanpoan kazetari mordo bat zeuden berari itxaroten. Elkarrizketa mordo bat eman ondoren Xabi famatua bihurtu zen. Eta horrelaxe bukatu zen istorioa.

Holaaaaa